

## Hesian taldeko Zuriñe Hidalgo eta Fran Urias eta Larregi taldea Igorren

12. orrialdea

## Itziar Zabala Espainiako txapeldun

Itziar Zabala eskalataile dimoztarrak Espainiako Bulder Txapelketa irabazi dau. Finala Bartzelonan izan zan urri bigarrenaren 22an. Igazko txapeldunak, Mari Alarconek, bigarren egin eban. Espainiako Kopa jokatu ten dabil orain, eta lehenengoa da sailkapenean Bilbon irabazi eta gero. 11. orrialdea



## Musikea bariku eta zapatuetan Arteako V. Azaro Musikalean

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 283

2017ko zementiaren 2a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Herri galdeketea Areatzan

Zemendiaren 5ean, billaroztarrak erabakitzeko eskubidea aldarrikatuko dabe "Euskal Estatu burujabe bateko hiritarra izan gura dozu?" itaunari erantzuna emonez.

**G**ure Esku Dago herri dinamikeak, herri galdeketa antolatu ditu hamahiru herritan egun horretan. Areatzako taldeak, Dagigun alkarteak, ahalik eta jente gehienak hartu dagiala parte gura dau eta ekitaldiz betetako eguna prestatu dau. Galdeketearen esangura politiko agerian ixteko, herri sarreratik plazarainoko giza katea egingo dabe 11:00etan, eta ondoren ekitaldia egongo da plazan.

Botoa 09:00etatik 20:00etara emon ahal izango da Dagigun alkartearen lokalean, plazaren ondoan. Hautestontziak zarratutakoan, botoak zenbatu eta emoitzen barri emongo dabe antolatzaileak. Ahalik eta jente gehien animau daiten, egunean zehar, kalejirak, tailerrak, herri bazkaria, batukadea eta euskal jantzak egongo dira, egunari jai giroa emoten. 7. orrialdea



### ARRATIA

## Adikzioen Prebentzioen Plana

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) Adikzioen Prebentzioen Plan Mankomunitate 2017-2020 onartu dau. Arratiako ikastetxe guztietan egin ditue galdeketa diagnostikoa egiteko. Gazteen konsumoai jago kienean, atzen urteotan apur bat behera egin dabela konsumoak ikusten da, kannabis eta anfetaminen konsumoak izan ezik, baina oso gitxi.

Sexu-genero rola eragina daukie konsumoetan. Hori substantzia ilegalen sarritasun handiko konsumoetan ikusten da argi, mutilak egiten dabez konsumo horreek eta neska izateak babes faktore dirudi.

Jurdana Apraiz AUMko Adikzioen Prebentzio Komunitarioko Teknikari barria da. Bere ustez gaiaren gaineko konzientzia sortzea da garrantzitsuen gazteen konsumoak behera egiteko. 8. eta 9. orrialdeak

### IGORRE

## Aurrekontuetarako egindako eskarien barri emongo dau Udalak

Maiatzean egin ebazan herritarrek batzarrak Igorreko Udalak. Urtea amaitu baino lehen, eskarien jarraipena egiteko argitalpen bat egin eta etxeetan bananduko dau.

Legegintzaldi hasieran, herriarentzat estrategikoak ziran proiektuak plangintza bat egin eban Udalak herritarren laguntzeagaz. Hainbat proiektu amaituta dagoz, eta amaituta ez dagozanak jarraipena izateko aurrekontuetan sartuko dira. 5. orrialdea



### ARTEA

## Sektore Batzarrak egingo dabez lehenengoz 2018ko aurrekontuetarako

Orain arte, Auzo Batzarrak egin dira baina Udalak "herritarren parte hartzea handituteko asmoz", gazte, eskolaume eta herriko alkarte eta taldeetako partaideak be batuko da. Auzo Batzarrai jagokienean be, hiru batzar izango dira. Lehenengoa aurreko hilean izan zan.

Aurrekontuak egiteko, eretxiak, ekarpenak eta kritikak jasoteari ekin deutso Udalak. Hilaren 30ean aurrekontuen zirriborroa aurkeztuko dau Herri Asanblada Orokorrean eta abenduan bozkatu ko dira. 5. orrialdea

### AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK ARTEAN 2018



Aurrekontu parte-hartzaileak udalaren demokratizaziorantz bidean ezinbestekoak dira, herritarrek udal-mailako erabaki garrantzitsuenetan inplikatze eta parte izateko. Eman dezagun pausua.

Aurten, udalak, bide horretan aurrera egitea erabaki du, herritarrei hitza emanez eta era zuzenean aurrekontuen inguruko iritzi, ekarpen eta kritikak jasoz. Hala ere, urterik urtera findu beharko dugun lana izango da aurrekontuena, ahalik eta auzo-batzar eta sektore-batzar gehien burutuz, herritarren parte-hartzea eta izaera erabakitzailea handituz.



## ARRATIA KOLOREETAN

## NON DAGO JOLASETAKO EMOZINOA?

Arratiako heldu, guraso, herri-tar eta hezitzaile zarien danok! Gelditu eta pentsatu, pentsatu zuon haurtzaroen, irudikatu zuon haurtzaroko jolas eta denpora pasak. Oin begiratu, begiratu zuon ingurura eta hausnartu. Hausnartu gure umeak non eta zetan pasetan daben denporea. Non dagoz ezkutarekuak, arbolak, arriskuak, txabolak, ura, lupetza... Horreetan guztietan dago gure ume denporako irudien albuma.

Udagoien eguzkitsu honetako egunetan parkeak hutsik ikusi doguz, ludotekak eta gazte lekuak aldiz, beteta. Negua luzea da gurean eta ume eta gazteak ludotekan egoteko denporea sobran eukiko dabe. Hau ikusita gure inguruan dagozan parke eta

jolas guneen inguruan berbaz parau gara, eta zalantza bat sortu jaku. Non dago gure haurtzaroko jolasetako emozinoa? Non gelditu dira olgetan orduak eta orduak emon doguzan espazio horreek?

Gurasoak, hezitzaile be bagara eta jolasa da gure seme-alabentzat biderik egoki eta dibertigarriena. Jolasa danez umeen hezkuntza-prozesuko atal garrantzitsuenetako bat (edo garrantzitsuen), aukera zabalagoak eskeini behar deutseguz jolas guneai. Ez dira bakarrik denporea pasetako lekuak, euren garapen prozesurako eta baita irudimena, hartu-emonak eta emozinoak garatutako leku bat be badira. Eta hau ez dinogu guk, pedagogo adituak baino. Lohitutea, arriskuak

hartutea, azken finean, jolastutea, munduan biziten ikastea da. Munduak nahiko debeku ipinten deuskuz, ez gara hasiko geu be txikitatik euren garapenerako funtsezkoak diran ikasketak debekatzen, mugatzen eta galarazoten. Non garatu ahal dabe ume eta gazteak euren irudimena?

Gaur egun arduraz beteta gagozan mundu honetan, helduok ez dogu zetan gure ume eta gazteak hartu behar dabezan ebatzietan sartu. Umeak gizarteko parte diran heinean euren jagokiezan ebatziak euren esku itxi behar dira eta guk, helduok, haurrak ahaldundu behar doguz ebatzi horreek hartzean.

Gaurkoan erronka bat daukagu zuontzako, itxi ume eta gazteak libre lohituten, libre jolasten eta min hartuten. Honek danak gazteen barrua eregiten lagunduko dabelako, etorkizunean izakera sendo bat lortuz. Gure ondorengoentzat ze irudiz osatutako albuma gura dogu?



Ondo dagoz zaletasunak eta ondo dago umeen etorkizuna begiratzea, baina umeak gura daben astea da? Umeak badaukie

olgetako gura beste denporarik? Umeak egoten dira gurasoakaz behar eta gura beste?

**Zaztaparrak Asti Taldea**

## TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**

**Urri bi. 30etik zemendiaren 5era**

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

**22:00etatik 09:00etara**

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

**Zemendiaren 6tik 12ra**

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54

**22:00etatik 09:00etara**

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

**Zemendiaren 13tik 19ra**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1

Tel.: 94 631 30 18

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea** 94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Euskotren** 902 543 210

**Areatzako Notarioratza**

94 673 92 26

**Bizkaibus 94 612 55 55**

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio-Artea**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ermitabarri-Arrigorriaga**

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriaga-Ermitabarri**

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11**

**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Rakek Aldekoa Diez eta Ainhoa Duñabeitia.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Roxana Constantin (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta, Xabier Beitia, Marta Rodriguez eta Rut Rodriguez (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Jabi Peribañez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

**Tiradea:** 7.200 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

**Babesleak:**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



## ZEURE BERBEA

### PreSOS

Momentu honetan Katalunian gertatzen dana lez, Euskal Herrian be, preso dagoz hainbat lagun estatu zentralistek ezarritako lurralde-eremuaren kontra burrukan egin izanagatik.

Euren gainean eta euren egoerearen gainean berba egiteko, modu bakarra dago: preso politikoak. Izan be, kartzelaratzeko politikoa da Auzitegi Nazionalatik ezartzen dalako (guzurrak esanda).

Euskal Herrian asko dakigu makroepaiketen gainean, (18/98 eta abar), eta momentu honetan, modu solidarioan preso politikoak eta preso politikoentzat lan egiteagaitik, 48 euskal herritareri 8tik 20 urte arteko kartzela eskatzen jakie.

Jordi Cuixart eta Jordi Sanchezen kasuan, "albaramendu delitua" deitzean deustie; gure herrikideen kasuan, "ETAgaz kola-

borazinoa" (azken honek gogaitu egiten gaitu).

Honek erakusten deusku Estatu espainolaren militante politikoak kartzelan sartzeako obsesinoa. Eta okerrena da, hainbestetan errepikatu dabenez, herritarrak barnerratu egin dabela.

Hau esan ostean, neure ikuspegi politiko apaletik uste dot ezin dogula ahaztu Euskal Herrian preso politikoak daukaguzala. Behin hau onartuta, Katalunia lango beste herriai enpatia erakutsi eta alkarregaz egin ahal izango dogu lan preso politikoaren eskubideen alde.

Amaitu daitela euskal presoen eta preso katalanen sakabanatzea, lehenbailehen preso politikoak etxean egon daitezkan. Horixe da nire gogoia, familiakoak eta lagunak ikusteko estatu espainol eta frantsesetik zehar, 30 urte baino gehiago bidaiatzen emon ondoren.

KONTXA LANCHARES

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [beginu@topagunea.com](mailto:beginu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Txu (Txua bota)



Txua zera da: ago barruan, mihinaren inguruan dagozan hodieta sortu edo egiten dan likido likina (txúe, agoskatuta). Batuan tu, listu edo txistu be erabilten dira. Jentearen aurrean txua botatea ez da ekandu ona, ekintza iraingarritzat jotzen dogu (kirolariak baino ez jakie parkatuten). Baina beste kultura batzuetan, harrigarria baderitxagu be, ez dago horren txarto ikusita. Ohikoa izan da gure nagusien artean, behar bat hasi aurretik esku barruan txua botatea.

## ERETXIA

### Euskal Herriko egungo laborantzearen eta eredu sozio ekonomikoaren hausnarketea

**E**uskal Herrian, milaka urtetan emon dan gizarte antolamentuaren zutabeak auzolana, batzarrak eta herri-lurrak izan dira. Antolamentu horren oinarrian bizirauteko erreferente legez, natura euki dogu, non inguruko baliabide naturalen erabilera eta ezagutzak beharrezkoak izan diran komunitatearen bizi-raupenerako.

Gutziz ez bada be, eredu hori aldatu da, historian zehar jasan doguzan hainbat eragile diralata, besteak beste: inbasioak; kolonizazioak, (Nafar Erresuma barne); Frantziar iraultzak ekarritako korrante liberala; gerra karlisten galerea (horregaz batera lur komunalen galerea batez be Bizkaian eta Gipuzkoan); industrializazioa; iraultza berdea; eta, gaur eguneko merkadu globaleko politikak.

Holan, bitzita balore gorena eban eta egitura sozial eta ekoizpen-sistema komunitarioan oinarria eban gizarte eredu, beste gizarte eredu bihurtu da, gizakiak, natura kontrolau eta gura beste ustiatu daiken balorea daukana eta kapitalismoan oinarritua dagoana.

Aitatutako eredu aldaketek zaildu egin dau gaur egun ingurumenarenganako errespetuzko praktikak martxan ipintea: laborantza ekologikoa, agroekologia edota laborantza iraunkorra, berbarako. Topatzen dituen zailtasunetako batzuk errentagarritasuna, belaunaldien erreleboa eta administrazioa dira.

Azken horretan lurraldearen antolamentua da oztoporik handiena. %4 baino ez da Euskal Herrian bertan ekoiztu eta konsumiduten diran elikagaiak. Beraz, argi geratzen da gaur eguneko



### AMAIUR UNZUETA ZORROZUA

Biologoa

lurraren erabilereak eta lehentasunak urbanizazio, kontraurbanizazio, industria eta gainontzeko azpiegiturak (Abiadura Handiko Trena esaterako) aurrera eramateko helburua daukiela. Eta ez laborantzarako, ondino gitxiago ingurumenagazko errespetuzko praktiketarako.

Zeintzuk dira horren ondorioak geure gizartearen? Alde batetik, elikagaiak Euskal Herrikanpo inportau behar izateak aztarna ekologikoa eta beste herrialdeakazko zor ekologikoa areagotu dau. Beste alde batetik, belaunaldiz belaunaldi baserri-tarren natura eta kultura lotzean dituan laborantzearen ezagutza tradizionalaren transmisioaren galerea ekarri dau. Eta, azkenik, gure herriaren autonomia eta auzo-komunitatea oinarritzat euki dauan gizarte antolakuntza gainbeheratu da.

Ondorio horreek kontuan hartuta, badagoz Euskal Herrian laborantza iraunkorra sustatzea helburu daukien hainbat inizatiba, kapitalismoan oinarritutako eredu agroindustrialari aurre egiten deustienak: konsumo taldeak, lekuko azokak, agroekologia formakuntzea, eta abar.

Hata guzti be, inizatiba horreekaz batera, gizabanakoaren eta lurraren arteko errespetuzko erlazino bultzatzen dituen baloreak barnerratzea beharrezkotzat jotzen dira elikadura burujabetza eta laborantza iraunkorra lortzeako. Eta ez hori bakarrik, balore horreek gainera, lurraldearen antolamentuaren inguruko politiketan sustatu beharko litzatekez.

Ez daigun ahaztu lurra geure komunitatearen ondasun bat dala. Eta, ez gizakioi bakarrik jago gure eta gura dogun moduan kontrolau eta ustiatu daigun tresna bat.




**LUMATUTEN****UNAI SANTOS****Herri bakotxeko gatza eta piperra**

**E**gun gitxi pasau dira "Herri txiki, infernu handi" telebista programea Igorren izan zanetik. Ez da gauza barria Arratian, izan be, aurretik Dima eta Zeanuritik be ibilitakoak dira. Betiko moduan, programa hau herri bakotxean dagozan persona, txoko edo anekdota berezienak erakusten ahalegindu zan. Igorren be beste hainbeste egin eben, eta momentu barregarri, interesgarri eta nostalgiko ugari itxi ebezan.

Telebista ikusle lez, EITBk "Herri txiki, infernu handi" moduko saio baten alde egiten dauan apustua txalotzekoa dala pentsetan dot. Formato nahiko txiki eta apala izan arren, kate publikoak programa fresko, original eta polita egitea lortzean dau astero. Gainera, zeregin horretan aitzakioak dira programako aurkezle biak: Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxaga. Bakotxa bere papelean, baina beti jator,

umoretsu eta maitekor jenteagaz; domekero herritar bakotxari zuku eta etekin gehiena ateraten. Eta hori dana, gaur egungo telebistan zer dagoan ikusita, asko estimetan da. Izan be, 2017. urtean gagozala, zer da nagusi telebistan? ba Salvame-ren estiloko txutxu-mutxu programak, Gran Hermano-ren neuriko reality-show kantsagarriak edo MasterChef-en antzeko pilo bat programa (sukaldaritzeagaz lotutako programakaz kokoteraino dagoan bakarra naz?). Pagadi eta Gurrutxagak gidatzen daberen programea, oster, telebista osasuntsu eta entretenigarria egiteko ahalegin zintzoa bezala ikusten dot.

Izan be, EITBko programa honek ondo erakutsi dauan moduan, herri txikerrenetan be, ondo arakatu ezker, "harribitxi" asko aurkitu daitezke. Kamara eta mikro bat leku aproposan jarri ezker, beti dagoz zer kontau, eta zer irakatsi izango daberen personak. Holan izan zan Igorren be, besteak beste, Jasoneren dendea, Bixentaren "Santiritue", Jorgeren izateko modua edo "Euskadi"ren kontakizunai esker. Danak desbardinak, baina danak herri batek behar dituan gatza eta piperraren parte.

**ZERTZEAN****SAIOA LARREA****BEGI TXINDORRA**

**P**risaz eta korrika daroagun bizimodu honetan gero eta mendi martxa luzeago eta lasterketa gatxagoak ikusteko aukerea daukagu.

Pasa dan urri bigarrenaren 7an, Arratia mendi korrikalariz eta ibiltariz bete zan. Gehienak Gorbeira begira egon arren, Gorbeia Suzien jokatu zalako, beste batzuek aukerea euki genduan Igorretik Basque Ultra Trail Series-en (BUTS) laugarren eta atzen lasterketan parte hartu ebenak ikusteko. Ganzabal Mendi Taldeak eta Igorreko Udalak laguntza opatu eben eta Igorreko kontrol postuan arratiarrak egon ginan.


BUTS antolatzeo inspirazinoa Seve Peña mendizale tolosarrak 1953an egindako balentrian dago oinarrituta. Sevek Hego Euskal Herriko lau uriburuek lotu ebazan ekinaldi bakarrean, gelditu barik.

2017ko BUTS, ordea, lau lasterketa edo etapatan bananduta egon da, maiatzetik urrira bitartean, eta guztira 500 kilometroko luzeera euki dau. Arratiakoa atzen etapea izan zan; luzeena lauretatik. Urri bigarrenaren 6ko gaubeke 23:00etan urten eben partehartzailak Donostiatik. Eta 140 kilometrotan 8.000 metro inguruko desnibela sufridu ostean, Bilboko helmugara heldu ziran lehenengo korrikalariak urri bigarrenaren 7an, eta atzena 8an.

Arratiar batzuk be egon ziran korrikalarien artean, Zigor Aragon igorretarra (argazkikoa) eta Iker Bilbao dimoztarra esaterako.

Meritua langoa daukazue!

**Irene Bilbao**



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarregia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bilakia  
T. 94 631 50 39  
Kalejatu Zerbaita 100  
R.P.S. 21/06

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanakoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE



IGORRE

# Herritarren aurrekontuetako eskarien jarraipenaren barri emoteko agerkari bat aterako dau Igorreko Udalak

Igorreko Udalak 2018ko aurrekontuetako herritarren eskari eta ekarpenak jasoteko batzarrak, maiatzean egin ebazan.



tuela dino alkateak.

### Nobela grafikoa

2017ko proiektu batzuk eginda dagoz, eta gehienak bideratuta. Bideratuta dagozan proiektu gehienak 2018 urtean zehar egingo dituela dino alkateak. Aprilean, Igorreko bonbardaketearen gaineko nobela grafikoa aurkeztuko dabe. Urteetako lana da. Angel Larrea, Ekain Pujana eta Ibai Pujana informazioa batzean dabiz; istorioa Igor Estankona dabil idazten eta marrazkiak Maite Yurrebasok egingo ditu.

Errekan hondartza egiteko ejekuzino proiektua be esleituta dago eta eskolako patioaren berrantolaketearen ejekuzino udan esleitea espero dau alkateak.

Oinezbideai jagokienean Gezalako oinezbidearen ejekuzino proiektuaren erredakzioa oraingo hilean adjudikauko da, eta Orobiko oinezbidea egiteko Arantzazuko Udalgaz harremanetan dago Igorreko Udala.

### Aparkaleku barria Elexalden

Agirre Lehendakari kaleko 3. fasea 2018an egitea planteau zan legegintzaldi hasikeran, baina orain horregaz hasi aurretik, aparkaleku bat egitea aurreikusten dau Udalak. "Aparkaleku gehiago kendu aurretik beste aparkaleku bat egin gura dogu" dino alkateak. Aparkalekuak Mandoia kaletik izango dau sarrerea eta 90 kotxe inguruk aparkau ahal izango dabe bertan.

Plangintzan 2018rako agertzen zan beste proiektu bat, Industrialdea barriztutea zan. Hau, Errota fundazioagaz alkarlanean egin gura dau Udalak. "Obra txiki batzuk egiteko asmoa badago, baina neurrikoak izan beharko dira, ze Industrialdeari itxura barria emotea ez da bideragarria guretzat".

plangintza orokorrigo bateri erantzuten deusie eta aurreko urteetako proiektuak jarraipena emoten jakie batez be. Plangintzan, 2016rako 9 proiektu aurreikusten ziran; 2017rako beste 9; eta 2018rako bost. 2019 urterako ez zan proiekturik aurreikusit, amaitu barik dagozanak amaitu ahal izateko.

2016 urtekoai jagokienean, proiektu batzuk amaituta egon arren, beste batzuk amaitu barik dagoz eta horreek amaitu gura dauz Udalak 2018an. Arau Subsidiarioen kasuan berbarako, proiektua esleituta dago eta datorren urteko zezeilean onartutea espero dau Anzolak.

Aisigune proiektuan aldaketa handiak egon dira. Izan be, Elexalde kalean dagoan lokal bat ipini gura eban Udalak gazteentzako baina horretarako aurrekontua 400.000 eurotik gora urteten zan eta larregizkoa erexi eutsien. Orain beste lokal bat erosi gura dau Udalak erreka parean, 105eko atzekaldean. Hori dala eta, URAGaz hartu-emonetan dago.

Ebay enpresea egoan aldean erreka bideratzeko laneko proiektua URAK aldatu arazo eban, eta proiektua atzeratu egin da.

Kamioien aparkalekuari jagokienean, "azkenengo proiektuko azkenengo aldaketak" onartu di-

### Erredakzioa

Urtea amaitu baino lehen, eskarien jarraipena azalduten dauan agerkaria bananduko dabe etxetan. Batzarretan, legegintzaldirako onartu ziran proiektuen egite mailaren barri be emon zan. Izan be, aurreko urteetako proiektuak jarraipena emotek hartuko dau aurrekontuen zati handi bat.

### Auzuneetako eskariak

Maiatzeko batzarretan egindako eskariak jasoko ditu Igorrek 2018ko kontuetan. Bide bazterretako bedarrak gehiagotan ebagiteko, seinalizazio batzuk hobetuteko eta Garakoin autobus geralekuan aterpea ipinteko diru partidak egongo dira. Dana dala, horreetako batzuk oraingo urtea amaitu baino lehen eginda egon daitezke. Garakoin markesina ipinteko baimenak lortuta dagoz eta markesina bera be eskatuta. "Maiatzean batzarrak egiteak eskari batzuk lehenago betetea ekarri dau" dino Beinat Anzola Igorreko alkateak.

Edadekoentzako herri adeitsuagoa izateko, Bizi Batzordeagaz alkarlanean be proiektu batzuk gauzatuko ditu Udalak. Tartean, desfibriladore gehiago ipintea.

### Plangintza

Urte bakotzeko aurrekontuak

ARTEA

# Auzo eta sektore batzarrak egiten hasi dira Artean 2018ko aurrekontuak egiteko

Aurrekontuetarako erexiak, ekarpenak eta kritikak jasoteko, auzo eta sektore batzarrak egiten hasi zan Udala urri bigarrenean. Oraingo hilean be batzarrak egiten segiduko dau eta hilaren 30ean aurrekontuen zirriborroa aurkeztuko dau herri asanblada orokorrean Udalak.



### Erredakzioa

Abenduan azken proposamena aurkeztu, eta 2018ko aurrekontuak bozkatuko dira.

Udalak Sektore Batzarrak egingo dauz lehenengoz aurten.

Orain arte, Auzo Batzarrak egin dira baina Udalak "herritarren parte hartzea handituteko asmoz", gazte, eskolaume eta herriko alkarte eta taldeetako partaideakaz be batuko da.

### Batzarrak

Hiru Auzo Batzar egingo dira. Lehenengoa urri bigarrenaren 26an izan zan. Bertara, Biteri, Ugarte, Astui Goikoa, Garantxe, Esparta, Larrazabal, Garai, San Martin

eta Goikoko auzotarrak egozan deituta euren ekarpenak egiteko. Bigarrena, zemendiaren 2an izango da eta horretan, Herriko plaza, Kalleja eta Astui Behekoakoak parte hartu ahal izango dabe. Hirugarrena barriz, hilaren 9an izango da. Batzarrok Kultur Etxean izango dira arrastiko zazpiretan.

Sektore Batzarrak be abiatu dauz Udalak, zenbait talderen beharriaz jasoteko. Hori dala eta, urri bigarrenaren 29an gazteakaz batu ziran udal ordezkariak. Zemendiaren 2an, eskolako umeakaz batuko dira eskolan eta hilaren 8an alkarte eta taldeakaz Kultur Etxean 19:00etan.

### Aurrekontuen aurkezpena eta botazioa abenduaren 19an

Batzar horreetan jasotako ekarpenakaz egindako aurrekontuen zirriborroa aurkeztuko dau Ogasun zinegotziak udaletxean, zemendiaren 14an, arrastiko zazpiretan. Hilaren 30ean barriz, herri asanblada orokorra egongo da, "Arteaztarron biltzarra", zirriborroaren aurkezpena egiteko Kultur Etxean, 19:00etan. Ondoren, Ogasun Batzordeak aurrekontuen atzen proposamena egingo dau abenduaren 8an eta 19an, udalbatzan bozkatuko dira 2018ko aurrekontuak.

<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 673 62 37 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre

2 urtebiu 18ra



ARRATIA

# Ardi-ulea jasoteko zerbitzua eskeini dau Gorbeialde alkarteak

Erredakzinoa

Ardi-lanea baliabide bat izatetik arazo izatera pasau da. Oraintsu arte, ardi-lanea batzean etxe etxe pasau izan dira, eta pagau be, zeozer pagetan zan. Baina orain doban be ez dabe eroan gura. Hori dala eta, artzainak arazoak daukiez pilatuta daukien ardi-uleagaz eta Gorbeialde Landa Garapen Alkarteak, Bizkaiko Foru Aldundiko laguntzeagaz ardi-ulea jasoteko zerbitzua ipini eban urri lehenengoaren 25ean eta 26an Artean.

Arratian ia 5.000 ardi dagoz eta Nerbioi aldean 6.300. Ardi

jaube horreek Arteako Bildosola Industrialdera ardi-ulea erroteko aukerea izan eban. Jaube batzuk dana dala, topau deusiela urtenbidea laneari esan eutsan BEGITURI Bingen Larizgoitia Gor-



Ardi-ulea.

beialdeko arduradunak. Datorren urteari begira, batu behar izatekotan lehenago batuko dabela dino Larizgoitiak.

Probetxua atera

Gorbeialdeko arduradunaren arabera, jasotako ardi-ulea ez da ez erreko ez zabortegi batera eroango. "Guk batutako ardi-ulea Recuperados lsaik eroango dau Gipuzkoa aldera. Eta ez da izango zabortegi batera botateko, ezta erreteko be. Zorionez probetxua aterako deutso".

ZEBERIO

# Gaztelekuak atek zabaldu ditu barrero

Erredakzinoa

Udan zarratuta egon ostean, urri bigarrenaren 27an Zeberioko Gaztelekuak atek zabaldu eban barrero. Hemendik aurrera, bariku eta zapatuetan egongo da zabalik 18:00etatik 21:00etara.

Aurreko ikasturteko dinamika bera izango dau ikasturte honetan be. Hau da, begiralea egongo da momentu guztietan eta gazteak eurak antolatutako ekintzak egingo ditue. Honegaz lortu gura da gazteen garapenerako onak, baina aldi berean euren interesai erantzuten deutseezan ekintzak eta tailerrak eskeintzea.

ZEBERIO

# Lemoako behargin bat hilda topau eben Zeberion

Erredakzinoa

Eraikuntzako 57 urteko behargin bat hil zan urri bigarrenaren 18an, Zeberion, beharrean egoala. Behargin autonomoa zan eta Zeberioko Zautuola auzuneko etxe bateko obra baten elektrikari beharrak egiten egoan. Lankide batek konortea galduta topatu eban baina larrialdi zerbitzuak heldu ziranerako hilda egoan. Heriotzearen kausa jakiteko ikerketea egiten dabiz.

Hildako behargina LABeko afiliadua zan. Sindikatu honen arabera, Euskal Herrian urte hasikeratik 45 beharginek galdu dabe bizia, "lan istripuz edo istripuen ondorioz" eta guztien atzean prekariedade eta lan baldintza kaskarrak dagoz.

**Zugaitik BEGITUTen dogu**  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre

INMOBILIARIA  
Tfnoa: 94 631 80 04

**LARREGI + ZURIÑE ETA FRAN "HESIAN"** Kontzertu akustikoa  
AZAROA 10 IGORRE  
Lasarte aretoa 21:00

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendizola, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia  
Tel: 609 480 839 / 609 950 717

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoa ebaigien dogu Bizarra egin eta bukunduten dogu  
Tel: 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

**Kili-Kili**  
Ampu eta Puzkultura  
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bakoko)  
Tel: 94 673 43 81

**begitu**  
anillo uldeko sarrero

LEMOA

# Baserriko produktuen azokea eta perretxiko erakusketea

Erredakzinoa

Lemoako Udalak antolatuta, zemendiaren 12an Lemoako XVIII. Nekazaritzako Elikagaien azokea egongo da Elizondon, futbol zelaiaren ondoan. Goizeko 10:00etatik 15:00etara, Bizkaitik etorritako 20 ekoizle ipiniko ditue salgai baserriko produkturik onenak. Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako erakusketa mikologikoa be egongo da Atxetako plazan. Perretxikoak Arratian bertan bezperan batutakoak izango dira. Izan be, hilaren 11n, perretxikoak batzeako goizeko urtekerat bat antolatu dau Ganzabalek Arratiatik zehar.



**2018 AURREKONTU parte-hartzaileak**

**Urria**  
23 24 25 26 27 28 29 30 31  
Auzo Batzarra I (26)  
Gazteekin Batzarra (29)

**Azaroa**  
2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30  
Auzo Batzarra II eta Eskolako umeekin Batzarra (6)  
Elkarte eta Taldeekin Batzarra (14)  
Auzo Batzarra III (9)  
ARTEAZTARRON BILTZARRA (30)

**Abendua**  
4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23  
Ogasun Batzordea (8)

Udalbatza Aurrekontuak onartu 2018

Zu zara giltza



## AREATZA

# Herri galdeketa bozkatzu erabakitze eskubidearen alde egingo dabe billaroztarrak zehazkiaren 5ean

Erabakitze eskubideak hain ondorio larriak ekarri dituan honetan, Gure Esku Dago dinamikeak erabakitze eskubidea aldarrikatzen jarraituten dau Kataluniari babesa adierazteko ekintzakaz eta herri galdeketa bitartez. Zehazkiaren 5ean, Areatzan, "Euskal Estatu burujabe bateko hiritarra izan gura dozu?" itaunari erantzuteko aukerea izango dabe. Egun horretan bertan, Euskal Herriko beste 12 herritan be egingo dira galdeketa.



Ezkonbarriak botoa emoten urri bigarrenaren 28an.

### Erredakzioa

Gure Esku Dagoko Areatzako Dagigun alkartekoak "herri konsulten protokoloak ezartzen dauzan baldintza guztiak bete" dituela dioe. Berme batzordea, jarraipen batzordea, segurtasunerako taldea, begiraleak, informatikoak eta mahaikiak prest dagoz. Hilaren 5ean, 22 persona egongo dira egunean zehar galdeketa ahalbideratzen. Bozka lekutik aparte, programa zabala antolatu dau Dagigun alkar-teak herri jentearen laguntzagaz. Kalejirea, gazteentzako tailerrak, kantu-potea, herri bazkaria, batukadea eta euskal jantzak animauko dabe

herria. Izan be, kalea musika eta jantzak bete gura dabe, inor ez daiten etxean geratu eta parte hartzerik zabalena lortzeako. "Erabakitze eskubidea defendiduteko modurik onena botoa emotea da-eta".

### Harrera ona

Urri bigarrenaren atzen egunean, Dagigun alkartekoak etxe ibili ziran galdeketa informazioa eta botoak bananduten. "Oso harrera ona egin deuskue orokorrean. Jenteak interesez hartu dau informazioa eta gehienak baekien Areatzan galdeketa egiteko zala" azaldu deusie BEGITURI.

### Berbaldia atzeratu da

Katalunian bizi diran momentuak dirala-eta, zehazkiaren 4rako aurreikusita egoan berbaldia atzeratu egin dabe Vic-eko PdeCat, ERC eta CUPeko zinegotziak etortzerik izan arte.

Beste aldaketarik ez dau izan egitarauak. Domekan, 11:00etan izango dira giza katea eta ekitaldia plazan. 20:00etan botoak zenbatu eta emoitak emongo ditue.

### Gure Esku Dago

Gure Esku Dago Erabakitzearen Eskubidearen aldeko herri dinamikeak 2013ko bagilean egin eban aurkezpena. Euskal Herria herri bat dala eta erabakitze eskubidea euskal herritarri jagokiela esan eben.

Euskal Herriaren erabakitze eskubidea aldarrikatzeko, 2014an 150.000 lagunetik gora Durangotik Iruñeara giza katea egin eben. Galdeketa "lehen olatua" 2015eko bagilaren 5ean izan zan. Harrezkerotik, biztanleak 133 herritan emon dabe euren eretxia Euskal Herriaren estatus politikoaren gainean. Zehazkiaren 5ean, beste 13 herritan emongo dabe.

Arratian Diman egin zan lehengo herri galdeketa 2016ko zehazkiaren 27an; hurrengoa Zeanurin, 2017ko maiatzaren 7an, eta orain Areatzaren txandea da. Areatzak Igorreri pasauko deutso lekukoa.

## ARRATIA

# Cuixart eta Sanchezeri babesa emoteko konzentrazioak egin dira

### Erredakzioa

Urri bigarrenaren 17an, Katalunian egindako erreferenduma dala-eta espetxeratutako Omnium Cultureko Jordi Cuixart eta ANC Biltzar Nazional Katalaneko Jordi Sanchez presidenteari babesa emon eutseen Arratian, Gure Esku Dago deitutako elkarretaratzetan. BEGITUREN iturrien arabera, Areatzan, Artean, Diman, Igorren eta Zeanurin, 300 lagun inguru batu ziran.

"Idea politikoaren eta adierazpen askatasunaren kontra egiten dabilz zuzenean Espainiako es-

tadua, podere judizialaren bidez eta etenbako bildurraren kanpaina eginez. Lar urrun heldu da. Herritarren oinarriko eskubidei bizkarra emon eta gizatasunaren muga gainditzeraino. Eta orain Kataluniako independentziaren aldeko mobilizazioak eta adierazpenak delitu bihurtu guran dabil. Oso larria da hori. Demokrazia baten aukera guztiak euren lekua izan behar dabe eta proiektu politiko guztiak modu baketsuan eta demokratikoan defendidu eta gauzatzeko modua izan behar dabe, salbuespen barik" adierazo eban GEDK.



## AREATZA

# Independentistak Sareak herri galdeketa baiezko botoa emoteko eskatuko dau

### Erredakzioa

Independentistak Sareak, zehazkiaren 2rako, ekitaldia antolatu dau, Areatzako herri galdeketa baiezkoaren aldeko kanpaina egiteko. Arrastiko 19:00etan hasiko da plazan. Arkaitz Estiballesek eta Igor Menikak bertsoak kantauko dabez, eta gero Txutxi Ariznabarretaren berbaldia egongo da eta "Euskal estatuari bai esateko 11 errazoi" azalduko ditue. Amaieran, hurreratutako guztiak "argazki independentista" aterako dabe.

**Euskal Estatuari bai**

**EKITALDIA AREATZAN**  
Azaroaren 2an, eguna  
19:00etan, plazan

- Arkaitz Estiballesek eta Igor Menikak bertsoak
- Txutxi Ariznabarretaren berbaldia eta Iñaki Etxebarri bai esateko 11 errazoi

Amaieran argazki independentista

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

**www.begitu.org**

**Gugaz harremanetan ipinteko**  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com

**arratiako instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Pab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

**www.uzteka.com**

- Aireta gutxitzea
- Laguntza pikoindutaria
- Laguntza
- Fuosteneria
- Pikoindutaria
- Lantze erretziak
- eta abar gaitzak

**Abel Lapatza Iza**

Taxi zerbitzua 24 ordu  
Dima

946 317 252  
608 287 249

## ADIKZINOEN DIAGNOSTIKOA ETA PLANA

# Apenas aldaketarik ez, atzen urteotako gazteen konsumoetan

Urrietan onartu eban Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) Adikzioen Prebentzioen Plan Mankomunitate 2017-2020. Ortzadar Fundazioak diseinatu eta gauzatu dau plana. Diagnostikoa batez be gazte eta nerabeengan zentratu da eta horretarako Mankomunitatean dagozan 9 ikastetxeetan hainbat substantzietako konsumoak aztertzekeo galdera sortak egin ditue.

**Erredakzioa**

Gai honetan zeresana daukien beste eragileakaz, osasun arloko beharginak, teknikariak eta alkarteetako ki-deakaz be, alkarriketaz, inkesta telefonikoak eta batzarrak egin ditue, eretxiak jasoteko. Horreetan 81 personak hartu dabe parte. Datuak barriz, eskola diagnostikoan bakarrik jaso dira.

**Arratia**

2016ko datuen arabera, Arratian 13.883 biztanle dagoz.

Udalerrria	guztira	gizonezkoak	andrazkoak	0-19 urte		20-64 urte		+ 65 urte	
				G	A	G	A	G	A
Arantzazu	378	189	189	47	37	111	115	31	37
Areatza	1.194	567	627	118	122	366	363	83	42
Artea	736	368	368	68	70	225	214	75	84
Bedia	1.026	488	538	74	102	327	322	87	114
Dima	1.459	753	706	180	136	453	417	120	153
Igorre	4.108	1.985	2.123	394	403	1.253	1.311	338	409
Lemoa	3.559	1.800	1.759	395	325	1.169	1.082	236	352
Ubide	180	96	84	14	11	67	54	15	19
Zeanuri	1.243	631	612	119	116	394	353	118	143

Biztanleria. Eustat 2016

**Iturria: Adikzioen Prebentzioen Plan Mankomunitate 2017-2020.**


Eskola diagnostikoa Arratiako 9 ikastetxeetan egin dabe, 621 nerabe eta gazteen erantzunakaz. Horreetatik %54,2 gizonezkoak dira eta %41,2 andrazkoak. Ikastetxeetan, 11 urtetik gorakoai egin jakie galdeketea, eta erantzun daben %86a, 12 eta 17 urte bitar-

tekoak izan dira.

Tabako, alkohol, kannabis eta beste substantzia ilegalen Arratiako konsumoak, EAEkoa baina apur bat handiagoa dala dino Jurdana Apraiz AUMko Adikzioen Prebentzio Komunitarioko Teknikariak. Eta EAE dago "gehien

konsumiduten dan autonomien artean". Beraz, inguruko lurraldeetan baino gehiago konsumiduten da Arratian.

Orain dala 5 edo 10 urtekoaren aldean, kannabis eta anfetaminetakoak salbu, beste konsumoak behera egin dabe, baina oso gitxi,



"ia bardin jarraituten dabe" dino teknikariak.

Kannabis konsumoari jagokonean, galdetutakoan %35,5ak onartuten dau konsumidu izan daua, 1996 eta 2011 urteetan antzera. 2006an gorakada bat egon zan baina atzen 10 urteotan kannabis konsumoak behera egin dau. Aurten Arratian lortutako datuak EAEn 2012an lortutakoak baino altuagoak dira.

Substantzia ilegalai jagokonean, kannabisaz gainera, LSD, anfetaminak, extasia, kokaina, heroina eta inhalanteen konsumoak aztertu ditue. Orain dala 20, 10 eta 5 urte lortutako datuakaz al-

dira.

Substantzia ilegalai jagokonean, gehien konsumiduten diranak anfetaminak %6,4 eta kokaina %5,8 dira. Areatzan konsumiduten da anfetamina eta kokaina gehien eta Dima dago bigarren lekuan.

**Sexu-genero sistema eta droga konsumoak**

Argi ikusten da ikerketa honetan, substantzien konsumoak estu lotuta dagoala gizonezkoen genero rolari. Izan be, tabako eta alkoholaren nozbehinkako konsumoan alde handirik egon ez arren, alkoholaren eguneroko konsumoak



deratzean ikusten da orokorrean beherakada egon dala, kannabis eta anfetaminen kasuan izan ezik.

**Konsumoak bizilekuaren arabera**

Artean izan ezik, herri guztietako gazteen erdiak baino gehiagok inoz ez dau tabakorik konsumidu eta edade honeetan, 12 eta 17 urte bitartean, eguneroko konsumoari jagokonean, kopururik txikiena Bedian emoten da (%3,4) eta handiena Areatzan (%20,8).

Alkoholaren kasuan barriz, herri guztietan ikasleen erdiak baino gehiagok konsumidu dau alkohola inoz. Abstinentzia mailarik handiena Arantzazun (%42,9) eta Lemoan (%39,4) emoten da eta txikiena Diman (%26,5). Baina eguneroko konsumiduten dabenak Areatzan (%1,9) eta Igorren (%1,8) bizi dira.

Kannabis dala eta, abstinentzia mailarik handienak Bedian (%78,3), Lemoa (%73,4), Igorre (%71,3) eta Arantzazun (%70) emoten dira. Eguneroko konsumiduten dabenak barriz, Areatzan (%17) eta Zeanurin (%13,2) bizi

eta droga ilegalen sarritasun handiko konsumoak gizonezkoak egiten dabez batez be.

Tabakoari jagokonean, Arratian neska erretzaile kopurua mutil erretzaile kopurua baino apur bat handiagoa da, baina eguneroko andrazkoen %13k erretzen dabe eta gizonezkoen %18k. Alkohola eguneroko (%1) konsumiduten dabela erantzun daben gazte guztiak mutilak dira: neskak (%0), mutilak (%2).


Konsumo intensiboak mutilen genero rolari lotuta dagoala ondino gehiago ikusten da substantzia ilegaletan. Holan, kannabis konsumidu daben andren kopurua txikiagoa da eta desbardintasuna nabarmena da zenbat eta konsumoak sarriago izan. Azken hilean kannabis konsumidu dabenak Areatzan (%68,8) eta Igorren (%81) konsumidu dabenak gizonezkoak dira. Bere bizitzan inoz substantzia ilegal bat konsumidu daben gehienak gizonezkoak dira eta desbardintasun handienak anfetaminak eta kokainaren kasuan emoten dira. Substantzia horreek nesken %2k eta mutilen %9k



konsumidu dabez eta.

Baina edade gazteetan andrazkoa izatea babes faktore bada substantzien konsumorako, ikerketak daturik bildu ez arren, osasun eragileakaz izandako alkarrizketetan, edadeko andrazkoen artean eta ezkutuan, alkohol eta psiko-

farmako konsumo handiak egon daitezkeza susmatuten da; 60 urtetik gorako andrazko batzuen artean arduratzeko moduko alkohol konsumoak, hain zuzen be. Gizonen kasuan, alkohola sozializetako modu bat da eta errezago detektetan da.



Arratiako ikasleen alkohol, kannabis eta tabako prebalentziak.

**Jurdana Apraiz AUMko Adikzinoen Prebentzio Komunitarioko Teknikari barria da. Urri lehenengoaren 1ean hasi zan Arratian beharrean, Alaia Ozerinjauregiri erreleboa hartuta. Hasteagaz batera onartu eban Mankomunidadeak Adikzioen Prebentzioen Plan Mankomunatua.**

Gazteen artean konsumoak behera egin dabe orokorrean kannabis eta anfetaminak izan ezik, baina ez asko eta gazteen konsumoa lotuta dago familien konsumoagaz. Gurean Islandian egin daben antzeko programarik ezarri leiteke? Ala erresistentziak egongo litzatekez. Izan be gure egunerokotasunean oso sartuta dagoz drogak.

Tabakoagaz be holango erresistentziak egon ziran eta lortu da, gitxienez, konzientzia bat izatea. Nik uste dot lortu behar dana eta Islandian lortu dabena dala konzientzia hartzea.

**Hori baino gehiago, arazo bat kopondutea lortu dabe.**

Dirutza handia ipini da. Baina azkenean nik uste dot lortu dana da konzientzia sortzea eta hemen hori falta da; alkoholak eta kannabisak sortu ahal dauzan eraginen konzientzia barbarako. Islandiako programak lortu dau aldaketea gurasoengan. Eta instituzinoak, kultura eta kirola sustatu dabe gazteai aisialdian beste aukera batzuk emoteko. Egia da hor lan handia egin dala eta dirua be egon dala, baina hor egon dana batez be, konzientzia aldaketea da.

Konsumorik handienak Areatzan, Diman eta Zeanurin egiten dira; txikienak barriz, Lemoan, Igorren eta Bedian. Emoten dau herri txikia izatea arrisku faktorea dala eta Bilbotik hurrago egotea babes faktorea. Zergaitik?

Ez dakigu oso ondo zer gertatzen dan hor. Nahikoa kurioa da. Nik esango neuke herri giroan, betiko ohiturakaz jarraituten dogula. Lemoan barbarako, Bilbo gertuago daukie eta beste ikuspuntu bat dago. Etorkin piloa dago eta horrek batzuetan jeitsi egiten dau alkohol konsumoa.

Kutsatu egiten gara herrian daukagun ereduagaz. Herri txikietan ohiturak mantenidu egiten dira, onak eta txarrak. Euskerea manteniduten dan legez... (euskera,

nekazal mundua, artisautza...) ohitura txarrak be mantenidu egiten dira. Igoal momentu baten permitidu egin dan gauza bat, zenbait konsumo esaterako, mantenidu egiten dira ez dagozalako hainbeste aldaketa. Lemoak aldaketa handiak izan dauz eta Igorreko jentek joan-etorri asko egiten ditu Bilbora.

**Herri desbardinetan gauza desbardinak atera dira. Ekintza desbardinak planteauko dozuez?**

Egingo da baina zaila da. Oso zaila da zazpi edo zortzi herrigaz behar egitea. Premina handia dagoala ikusten badogu egingo da, baina esfortzu bat egiten danean danentzat izaten da.

**Islandian egin dan moduan hemen be drogakaz amaituteko, gizarte osoaren ohiturak aldatu beharko litzatekez. Noraino heldu gura da plan honegaz?**

Gehienbat osasun arloan eragitea gura dogu. Edo gitxienez konzientzia apur bat sortzea, sensibildadea. Ez dogu lortuko jarkera aldaketa handirik, baina gitxienez gauzak egiten gabizala erakutsi.

Sensibilizazio batzuk kannabisaren inguruan izango dira. Zabalegi jokutzen dogu eta horrek konsumoan eragiten dau. Jenteari erakutsi gura deusagu daukagun permisibildadea arrisku faktorea dala.



**ALKIZABAL**  
ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)

Basoak garbitzeko makineria

**ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK**  
ERAIKUNTZA, LOREZAITZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA



## MENDIA

## Lemoatx Trail 2017ko zemendiaren 19an

## Erredakzioa

Ganzabal Mendi Taldeak eta Lemoako Udalak antolatutako Lemoatx Trail mendi lasterketeak eta mendi marxeak ibilbide bi izango ditue. Luzeak 24,3 km. eta 1.093 metroko desnibel positiboa dauka, eta laburrak 12,2 km.ko distantzia eta 755 metroko desnibel positiboa. Lasterketa zein marxa ez konpetitiboan parte hartu daiteke. Herrian kirola sustatzeko eta Lemoatxeko inguruak ezetuten emoteko sortu zan igaz Lemoatx Trail.

Partaideak Lemoako kiroldegitik urtengo dira. 08:30ean

marxa luzea egin gura dabenak; 10:00etan, lasterketa luzeko partaideak; 10:15ean, marxa laburreko ibiltariak eta 10:30ean, lasterketa laburreko korrikalariak. Martxak ez diranaz konpetitiboak ez da sailkapenik egongo. Lasterketan ostera, andrazkoetan zein gizonekoetan, helmugara heltzean diran lehengo hirurak garaikurra izango dabe. Baita lehenengo gizon eta andrazko lemoatxarrak. Izen emotea herrikrosa.eus webgunean egin daiteke hilaren 12ra arte.

Igaz, lehen edizinoan, 259 kirolarik hartu eban parte: 121 lagunek marxan eta 138 lasterketan.



## AZKOREA

## Urrezko Aizkolarien Ligako finala Iker Vicentek irabazi eban

## Erredakzioa

Aitzol Atutxa dimoztarrak, Euskal Herriko txapela irabazi eban astebete lehenago, baina urri bigarrenaren 20an ezin izan eban

Urrezko Aizkolarien Liga irabazi. Irabazlea Iker Vicente izan zan (20:08) eta Jon Rekondok bigarren egin eban (23:04). Atutxak 27 minutu eta 56 segundo behar izan ebazan beharrak amaituteko.

## TRINKETEA

## Ziarrusta-Ugarte eskuz binakako Elite txapeldun izan dira

## Erredakzioa

Ekhi Ziarrusta dimoztarrak eta Inhar Ugarte getxoztarrak 40-21 irabazi eutseen finala Loitegi eta Gurutzalderi urri bigarrenaren 27an, Abadiñoko Tornasolo Trinketearen.

Hasikeratik hartu eban bentajea Ziarrustak eta Ugartek eta "maisutasunez jokatu eban" Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzaren arabera.

Titulua lortzeako faboritoak eura ziran eta sasoi bete dagozala erakutsi dabe.

## RAIDA

## Arratiarrai raida ezetuten emon gura deutsee Arratia Raideko antolatzaileak

## Erredakzioa

Uri bigarrenaren 21ean, Igorren, Arratia Raideko VI. edizinoan jokatu zan. 2012. urtean izan zan lehengo proba eta, antolatzaileen arabera, indarra hartzean dabilen kirol modalidadea da. Arratia Raida, Artean, Areatzan (birritan), Diman, Otxandion eta Igorren jokatu izan da. Iparraldeko Ligaren barruan dago. Iparraldeko ligea 7 probataz osotuta dago. Arratiakoa, ligako seigarren proba izan da.

Bikoteka egiten dan kirola da eta orientazioan dauka bere ardatza. Zazpi orduan, mapan markatutako dagozan baliza-puntu gehien hartu behar dira. Ahalik eta puntu gehien, ahalik eta denpora gutxienean. Eta hau dana mapa bateri jarraituz egin behar da; batzuetan bizikletan, eta beste batzuetan galapan. Gero proba espezialak egoten dira: eskaladea, espeleologia, eta abar.

## Bizikleta sektorea osorik ez, gehienak trekking luzea

Seigarren edizino honetan, kirolariak, 32 kilometro mendiko bizikletan, 19 kilometro trekking, eta orientazio proba espezialak Igorren izan ebezan.

Talde bakotzak bere estrategia aukeratu eban. Batzuek, lehenen-

go bizikletea eta gero trekking-a egin eban, eta beste batzuek alderantziz. Amaitzeko, 14:30etik aurrera, orientazioa Igorren.

Kirolariak, mapa eta bizikleta hartu eta mendirantz egin eban 10:00etan. Mandoiako tontorra helburu politena eta puntu gehien euki ebana izan zan. Bizikletako sektorea, ez eban inork osorik egin. Luzea eta gogorra zan eta lupetz asko egoan. Baina, "danak oso gustura amaitu eban, leku zoragarrietatik pasau ziralako" dinoe antolatzaileak.

Trekking-ari jagokonean barriz, gehienak, luzea egitea aukeratu eban. 19 kilometro eta 1300 metro desnibel, Urtemondo eta Belatxikieta ingurutik. Tontorrek zapaldu eta Belatxikieta inguruko koba batera sartu ziran.

Sektore luze biak amaitu ostean,

Igorreran joan ziran talde guztiak. Igorren, 7 kilometrotako orientazio proba egin eban eta 3 proba espezial: Lasarte parkean orientazio espezifikoko proba bat, institutu inguruan slackline, eta beste leku baten proba berezi bat.

Arrastiko 17:00etan amaitu zan raida. Ondoren, bazkaria egin zan partaide guztientzat eta opari zozketea.

## Arratiarrai animau guran

Aurtengo edizinoaren "balorazino ona" egiten dabe antolatzaileak, baina Arratiako talde eta kirolari gehiago bota dabezala faltan dinoe. "Horretarako, datorren urteko martian edo apirlean, hiru orduko raid txiki bat egitea pentsatuta daukagu, Arratian kirol mota hau ezetuten emoteko eta jentea animetako". Umeakaz be zeozer egitea pentsetan dabiz.



Raideko partaideak Igorreko eskoletan.

## KIROL ASTEA

## Kirolean landu beharreko baloreak azalduko ditu Koikili Lertxundik Lemoako Kirol Astearen

## Erredakzioa

Zemendiaren 13tik 19ra, Lemoako Kirol Astea izango da. Aste horretan, eskolan eta herrian, arrakasta handiko kirolak zein kirol bariak praktikatu edo ikusteko aukerea egongo da; barbarako, Hapkido Koreako arte martzialeko eskolak. Kirolean landu beharreko baloreen gainean egingo dau berba Koikili Lertxundik eta Oscar Garro Igorreko ziklistek be berbaldua egingo dau.

Eskolan, hainbat ekintza antolatu ditue ikasleentzat: Ganzabalegaz mendi urtekerak bat, kirolarien berbalduak, Lisa proiektuaren aurkezpena eta herri kirolak barbarako.

## Zemendiak 13, astelehena

10:00etan, SDK Hapkido Bizkaia antolatuta, Hapkido defentsa personaleko dobako eskolea kiroldegian. 19:00etan, Iluntzen Gazte Kultur

Elkartek antolatuta, Koikili Lertxundiren berbaldua "Kirolean landu beharreko baloreak" Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

## Zemendiak 14, martitzena

19:30ean, Kirlan-ek antolatuta, Oscar Garro Txirindularitza egokitutako ziklistearen berbaldua Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

## Zemendiak 15, eguaztena

10:00etan, SDK Hapkido Bizkaia antolatuta, Hapkido defentsa personaleko dobako eskolea kiroldegian. 20:30ean, Aitor Iparragireren emonaldia "Pamir 2017" Jubiladuen Etxeko goiko aretoan. Argazki erakusketak Ganzabalek antolatuta.

## Zemendiak 17, barikua

16:30ean, Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta Pelotea Herriz Herri, frontoian.

19:00etan, Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta, umeen pelota partiduak frontoian.

19:00etan, Lemoako Txirindulari Elkartek antolatutako mahai-ingurua "Emakumeak eta txirindularitza".

19:00etan, SDK Hapkido Bizkaia antolatuta, Hapkido defentsa personaleko dobako eskolea kiroldegian.

20:30ean, Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta, Abel Barriolari alkarrizketa irekia Joseba Urkiolaren eskutik frontoian.

22:00etan, nagusien pelota partidua.

## Zemendiak 18, zapatua

11:30ean, Kirlan-ek antolatuta, jantza modemoko masterclass-a kiroldegiko kantuan.

16:30ean, Mendieta Herri Kirol Taldeak, HerriSport-ek eta Ongi Etorri Errefuxiatuak-ek antolatuta, herri kirol parte hartzaileak Atxeta plazan.

## Zemendiak 19, domekea

08:00etan, Lemoatx Trail Mendi Marxa luzea; 09:00etan, Lemoatx Trail Mendi Marxa laburra; 10:00etan, Lemoatx Trail Mendi Lasterketa luzea; 11:00etan, Lemoatx Trail Mendi Lasterketa laburra. Eskolako aterpetik hasita.



## PELOTEA

# Anton Erkiagak irabazi dau Cafes Baque Txapelketea

Urri bigarrenaren 13an, lurretako frontoian, lortu eban txapela Joko Alai taldeko Anton Erkiaga pelotari zeanuriztarrak.



Anton Erkiaga.

### Erredakzinoa

Cafes Baque Txapelketea Gazte eta Kadete mailan jokatu da

eta Kadete mailako txapela izan zan zeanuriztarrarentzat, Lezamako Ormaetxeri 18-5 nagusitu ostean. Errez lortu eban txapela Erkiaga-

gak. Oso txapelketa ona egin dau eta lasai jokatu eban finalean be. Izan be, tantoak errez egin ebazan eta berari tantoa egitea gatxa zan. Hori dala-eta, 10-0 aurreratu zan markagailuan.

Partidu bat izan ezik, txapelketako beste guztiak "aidean" joan dirala dino Iñigo Atutxa entrenatzaileak. Hasikeran sorpresa izan zala jentearentzat "gazteena zalako. Baina guk argi geunkan bera zala faboritua" dino entrenatzaileak.

### Bizkaiko Txapelketan hasikera ezin hobea

Urri lehenengoan hasi eben federatuak Bizkaiko Txapelketea. Anton Erkiagak eta Maren Emeraldik osotutako bikoteak hasikera ezin hobea egin dau, jokatuak lehenengo bost partiduak irabazi ditu eta. Helburua, sailkapeneko lehenengo lauren artean amaitutea da Euskal Ligan jokatu ahal izateko.

Gazte mailan be, oso ondo hasi dan beste bikote bat dauka Joko Alai. Eta helburu bardinagaz dabil jokatuak Etxeita-Erkiaga bikotea. Ez hori bakarrik Bizkaiko Txapelketea irabazteko aukera handiak daukiezala dino Joko Alai pelota eskolako entrenatzaileak.

## ESKALADEA

# Itziar Zabala eskalatzailea Espainiako txapeldun

Bartzelonan jokatuak Espainiako Bulder Txapelketea irabazi eban Itziar Zabala urri bigarrenaren 22an.


### Erredakzinoa

Bigarren, Mari Alarconek egin eban, igazko txapeldunak eta hirugarren Maja Jonjic-ek. Gizonezkoetan, Jonatan Flor valentziarrak irabazi eban Espainiako Txapelketea.

Goizean, sailkatzekoa probak izan ziran. Andrazkoetan eta gizonezkoetan zortzina eskalatzaile sailkatu ziran finalerako. Finalean, 4 bloke egin behar ebezan 5 minutuko tartean. Itziar Zabala eta Mari Alarcon parean ibili ziran, baina garapena dimoztarrarentzat izan zan.

### Espainiako Kopea

Hurrengo astegoienean, Espainiako Kopako proba bat izan eban Zabala. Etxean jokatu eban, entrenetan dauan lekuan, Bilboko Piugaz rokodromoan, eta Kopako



Itziar Zabala.

proba hau be irabazi egin eban. Lehenengo doa sailkapenean.

[ESKAINTZAK UDAZKEN - NEGUA 2017]

# EZ DUT BESTE EZERENGATIK ALDATUKO (EZ BADA BESTE STIHL BATENGATIK)

Ekintza eta eskaintza baitozkoak 2017ko abenduaren 22ra arte

MOTOZERREN RENOVE PLANA 150€ BAINO BEZA BARRNE

Zeure denda espezializatuan bakarrik



## GARAJE FELIPE

[www.garajefelipe.stihl-tienda.es](http://www.garajefelipe.stihl-tienda.es)

- Garbe, 2 - Igorre
- 946 736 339
- [garajefelipe@euskalnet.net](mailto:garajefelipe@euskalnet.net)
- Montorra, behea 1º - Amorebieta
- 946 309 039
- [garajefelipe2@telefonica.net](mailto:garajefelipe2@telefonica.net)



## LEHIAKETEAK

## Ipiñaburu gaztandegiko gaztaia, irabazleen artean irabazle

## Erredakzioa

Ipiñaburu Gaztandegiko Jon Etxebarria eta Puy Arrieta irabazi eban urri bigarrenaren 18an, "Ordizia txapeldun" Gaztai Lehiaketea. Atzen hamar urteotako, 2008-2017 irabazleak lehiatu ziran eta Zeanurikoak gailendu ziran.

Ekitaldia Ordiziako Idiazabal Gaztaiaren Kofradiak eta Udalak antolatu eban Idiazabal Jatorri

Izendapenaren laguntzeagaz. Ipiñaburuok 2012an eta 2015ean irabazi eban Ordiziako Gazta Lehiaketea eta Irabazleen Lehiaketea honetan gaztai bi aurkeztu eban. Eureka lehian, Elgoibarko Mausitxa baserriko Jesus Ansola, Idiazabalgo J. Aranburu Elkarte, Eulateko Ricardo Remiro, Segurako Karnele Murua, Ordiziako Joseba Insausti eta Aiako Jose Luis Odriozola egon ziran. Irabaz-

leak urrezko domina eta 300 euroko diru saria jaso eban.

## Udabarriko gaztaia

Ipiñaburuok gaztai bi aurkeztu eban: bata ketua eta bestea azal zurikoa edo naturala. Bigarren honetara irabazi eban, udabarriko gaztai azal zurikoak, hain zuzen be.



Puy Arrieta eta Jon Etxebarria. Artxiboko argazkia.

## KONTZERTUA

## Larregi eta Hesian taldeko Zuriñe eta Franen kontzertu akustikoa Igorren

Hamazortzi urte bete barri ditu Udagoieneko Osterak, Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako euskerazko kultur zirkuituak. Berriz, Igorre, Bilbo, Arrigorriaga eta Leioan izango dira emonaldiak.



Hesian taldeko Zuriñe Hidalgo eta Fran Urias.

## Erredakzioa

Igorren, zehazkiaren 10ean, 21:00etan, Larregi Lemoako rock taldeak eta Hesian taldeko Zuriñe eta Franek kontzertua eskeiniko dabe, Udagoieneko Ostera zirkuituaren barruan. "Osterak euskerazko pilulak ekarriko deuskuz, euskeraz gozatutako aukera bereziak, alkarregaz disfrutatuko edo, zergaitik ez, nork bere buruari opari bat egiteko!" adierazoz dabe Euskaltzaleen Topaguneatik.

## Larregi

Larregi Lemoako taldea, Arratiako talderik ezagunenetakoa da. Taldeak lan luze bi argitaratu ditu *Bidea dugu helmuga* (2012) eta *Pantomima* (2014), eta Le-

moako Euskera Planagaz alkarlanean "Harro bizi euskeraz" abestia sortu eta grabatu egin eban.

Lemoakoak hainbat sari jaso ditue. 2010ean Gaztea irrati emisoreak Euskal Herri mailan antolatutuen dauan Maketa Lehiaketako Entzuleen Saria irabazi eban, eta 2014an Azkue Fundazioak antolatutuen dauan Banden Lehia.

Igorren euren punk-rock melodikoa entzuteko aukerea eskeiniko dau Larregi.

## Hesian taldeko Zuriñe eta Fran

Kontzertu akustikoa eskeiniko dabe Hesian taldeko Zuriñe Hidalgo eta Fran Urias musikariak. Kontzertu akustikoetan erritmo lasaioak landuten dabez, gitarrea eta abotsaz bakarrik.

**V. AZARO MUSIKALA ARTEAN**

AZAROAK 10. Arratsaldeko 19:00etan, Kultur Etxean  
IPUIN MUSIKALA

AZAROAK 11. Arratsaldeko 19:00etan, Kultur Etxean  
KONTZERTUA  
Bilbo Musika Eskolako Konboa (Jazz-Blues-Soul kontzertua)

AZAROAK 11. Gaueko 21:00etan, Arteako Herriko Bentan  
KONTZERTUA  
Lorenzo Mena

AZAROAK 17. Arratsaldeko 15:00etan, Arteako Eskolan  
Arteako Eskolan musika ere bai, jardunaldi irekiak

AZAROAK 17. Arratsaldeko 19:30ean, Andra Mari elizan  
Luis Iruarizaga Abesbatza, Arratiako Musika Eskola,  
Arteako eskolako umeak eta Arteako umeak

AZAROAK 17. Gaueko 21:30ean, Arteako Batzokian  
KONTZERTUA: SONIC STATION.

AZAROAK 18. Mataderoan  
19:00etan, Serigrafia tailerra Torontileren eskutik  
Ekarri zure kamiseta eta serigrafiatu "Azaro Musikala" logoa.  
Gaueko 21:00etan, KONTZERTUA

AZAROAK 24. Arratsaldeko 18:00etan, Musika Eskolan  
Arratiako Musika Eskolaren eskutik  
KALEJIRA+KONTZERTUA+TXOKOLATADA

AZAROAK 25. Gaueko 21:30ean, Ekomuseoan  
KONTZERTUA: TUCSON

AZAROAN ZEHAR LUDOTEKAN...  
Ludotekak musika daroa!  
Musika tresnen tailerrak, mozorroak, kalejira...

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK

MOKETA • SINTASOLA • PAPEREA

Elizalde, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 631 54 82 - 908 554 018

**Olaxte**  
OPTIKA ZENTROA

Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiko tentsioa  
Lentilen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak

Sabilgo Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
T. 94 657 70 03 - olaxteoptika@hotmail.es

**ugatxa**  
talentua

Ugarana kalea, 8  
48141 Dima  
T. 946 129 460

**izkaifisios**

IGORRE  
FISIOTERAPIA  
ZENTROA  
Elizalde, 4  
48140 Igorre  
94 631 55 08  
igorre@izkaifisios.com

ANDRA  
MARI  
KLINIKEA  
Fontzi Zabala, 1  
48960 Galdakao  
94 457 23 64  
galdakao@izkaifisios.com



## BERTSO AFARIA

### Onintza Enbeita eta Sustrai Colina Arantzazun

#### Erredakzioa

Zemendiaren 10ean, 21:00etan, Arantzazuko San Martinetako VII. Bertso-afaria antolatu dau Arantzazuko EH Bilduko kultur batzordeak. Bertsoak kantetan, Onintza Enbeita eta Sustrai Colina egongo dira.

Ibilbide oparo eta izen handiko bertsolariak dira biak eta biak hartzean dabe parte 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusian. Onintza Enbeita (Muxika, 1979), 2006an heldu zan lehenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalera.

Eskualdeko txapela irabazi eban urte haretan eta harrezkero izan diran final guztietan sailkatu da Bizkaian. 2005 eta 2009ko Euskal Herriko Txapelketan parte hartu eban. Bertsolaria izateaz gainera kazetaria da Enbeita, eta diputadua be izan zan 2012tik 2016ra.

Sustrai Colina (Urruña, 1982) 2001eko, 2005eko, 2009ko eta 2013ko Txapelketa Nagusietan finalista izan da eta 2014ko eta 2016ko Xilabako txapelak jantzi ditu. Bertsogintzaz gainera, kazetari beharretan be badihardu eta 2016an Rikardo Arregi kazetaritza saria irabazi eban.

#### Sarrerak tabernetan salgai

Zemendiaren 8ra arte erosi daitezke sarrerak Arantzazuko Herriko Tabernan eta Monteron, eta Igoerreko Rugby tabernan eta Axular Herriko Tabernan.

## KANTUA

### Zeanuriko Kanta Eguna hilaren 11n

#### Irati Urien

Zeanuriko Txistulari taldea sortu zaneko 50. urteurrena beteko da datorren urtean. Ordurako kontzertu berezia prestatzen hasita dagoz gogotsu, eta hara orduko be animau dira beste ekitaldi berezi bat antolatzen ospakizunai

hasikerea emoteko, Zeanuriko Kanta Eguna, zemendiaren 11n, San Martin egunean egingo dana.

Egun osoko egitarau honetan parte hartzera konbidau dabez mendebaldeko kantazale guztiak. Bitxikeria moduan, barriz, Baigorriko taldetxo batek be onartu dau konbitea. 11:30ean kantariai ondo etorri eginga, 12:00etan kantu-jireia hasiko da gero. 14:30ean bazkaldu eta arrastiko 17:00etan, kantuari eta jantzeari ekingo deusie euskal giroko jantzaldiagaz egunari amaiera emoteko. Bazkarirako txartelak herriko tabernetan dagoz salgai hilaren 5era arte.

## MUSIKEA

### Azaro Musikalak ipiniko deutso musikea udagoienari Artean

#### Erredakzioa

Zemendia musika hilea izatea ebatzi eben 2013an Arteako hainbat alkartek eta harrezkeroztik, estilo desbardineta musikea batzean dauan egitaraua prestatzen dabe alkarlanean, Arteako Azaro Musikala izenpean.

Ludotekan musika tresna tailerrak, mozorroak eta kalejirak egongo dira. Eta Kultur Etxean, tabernetan, eskolan, eta eleizan, mota guztietako kontzertuak zemendiko bariku eta zapatuetan.

Herriko jentek parte hartzeako ekintza bateratua egitea zan Arteako Azaro Musikalaren helburua eta musikea, horretarako atxakia. Gaur egun, helburua lortuta, musikeak atxakia izateari itxi deutso. Herriar askoren zaletasuna da eta kontzertuz beteteko errazoi nahikoa.

#### Zemendiak 10, barikua

19:00etan, Ipuin Musikala Kultur Etxeko Areto Nagusian.

#### Zemendiak 11, zapatua

19:00etan, Bilbo Musika Eskolako Konboak, jazz, blues eta soul kontzertua eskeiniko dau Kultur Etxean.

21:00etan, Lorenzo Mena bakar-

lariaren kontzertua Herriko Bentan.

#### Zemendiak 17, barikua

15:00etan, "Arteako eskolan musika ere bai" jardunaldi irekiak eskolan.

19:30ean, Luis Iruarizaga Abesbatza, Arratiako Musika Eskolea, Arteako eskolako umeak eta Arteako umeen kontzertua eleizan.

21:30ean, Sonic Station taldearen kontzertua Batzokian.

#### Zemendiak 18, zapatua

19:00etan, Serigrafia tailerra Torontileren eskutik Mataderoan.

21:00etan, kontzertua Mataderoan.



#### Zemendiak 24, barikua

18:00etan, Arratiako Musika Eskolearen eskutik kalejireia, kontzertua eta txokolatea Musika Eskolan.

#### Zemendiak 25, zapatua

21:30ean, Tucson taldearen kontzertua Ekomuseoan.

## IKASTAROA

### Eguneroko matxismoak identifiketako ikastaroa

#### Erredakzioa

Zuriñe Rodríguez Euskal Herriko Unibersidadeko ikertzaileak "Mikromatxismoak identifikatzen" izeneko ikastaroa emongo dau Dimako Abaro Aretoan, zemendiaren 16an hasi eta hiru eguenean zehar.

Ikastaroak "indarkeria ikusiezina" edo mikromatxismoen gaineko hausnarketea proposatzen dau, egunerokotasunean bizi diran "indarkeria desbardinak" gainekoa.

Eskolak Abaro Aretoan izango dira 18:30etik 20:30era arte. Ikastaroa Dimako Udalak antolatu dau Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako programazioaren barruan.

Izena emoteko atzen eguna zemendiaren 9a da.

## DUNBA

### Aurten be Gorbeia Suzien Zeanurin

#### Zeanuriko Herri Ikastetxeko 6. mailako ikasleak

Aurten be, Zeanurin, Gorbeia Suzien Lasterketearen VI. edizioa jokatu da. Oin dala 5 urte lasterketa hau Gorbeia beste turismo mota bat egiteko, bide zaharrak berreskuratzeko eta harrobia saihesteko sortu zan.

Urri bigarrenaren 2an, astelehenean, mendizale bi etorri ziran eskolara: Ainhoa Lendinez eta Jokin Zabala.

Jokinek mendira joan aurretik egin behar diran beroketak erakutsi euskuzan. Ainhoak barriz, mendian erabilten dan materiala erakutsi euskun: zapata erosoak, txubaskeroa, bastoiak, motxilea...

Ainhoa, mendizalea eta EITBko kazetaria be bada. Jokin kilometro bertikaletan aditua da. Oingo

urtean biak Gorbeia Suzien antolatuten ibili dira.

Urri bigarrenaren 6an, barikuan, herriko frontoian korrikalarietako dortsal banaketea egon zan.

Hurrengo egunean, eguraldiaren laguntzeagaz, 850 lagun etorri ziran Zeanurira, lasterketan parte hartzera. Ibilbide luzean (31 km.) 600 lasterkarik eta ibilbide laburrean barriz (21 km.) 250 kirolarik parte hartu eben. Lasterketea goizeko bederatzietan hasi zan. Ibilbide luzea hurrengo hau izan zan: Plazea-San Justo-Topeta-Zanburu-Lekanda-Arraba-Gorbeia kurutzeta-Aldamin-Jondogorta-Lanbreabe-San Juan-Plazea.

Aurtengo irabazleak andretan: 1. Ingrid Mutter izan zan, 2. Celia Chiron eta 3. Sheila Aviles eta

gizonetan barriz: 1. Aritz Egea, 2. Antonio Martinez eta 3. Cristobal Adell izan dira.

Guztira hogetabi sari banandu ziran plazan.

Anekdotak bitxi bat komentauko deusuegu:

Korrikalari bateri zapatilea lokatz artean gelditu jakon eta Arrabako aterpeko arduradunak bere zapatilea baino bi taila handiagoa zan bat itxi eutsan korrikalariari, eta holan heldu zan plazara.

Lasterketa ondoren frontoian bazkaria antolatu zan, arrastian Gibelurdinek taldeagaz kalejireia



izan zan eta gauean DJ FAK plazea animau eban.

Hurrengo egunean, domekan, Gorbeia Suzien Txikia egon zan, herriko eta inguruko umeentzako. Egun honetako egitaraua hau izan zan: 11:00etan, izen emotea, 11:15ean, antzerki xelebrea egon zan eta 12:00etan, lasterketearen urteera. Lasterketea amaitu ostean kopaua, sari banaketea eta herri kirolak egon ziran.



## AGENDEA

## ZEMENDIAK 2

## ARRATIA

Hilaren 10era arte aurkeztu daitezke Arratiako Enpresa Ideen Lehen Lehiaketarako proiektuak AUMn.

## ARTEA

Zemendian zehar ludotekan. Ludotekeak musika daroa! Musika tresnen tailerrak, mozorroak, kalejireia...

19:00etan, aurrekontuetako Auzo Batzarra: Herriko Plaza, Kalleja eta Astui. Kultur Etxean.

## AREATZA

19:00etan, Euskal Estaduari bai. Independentistak Sareak antolatutako ekitaldia. Igor Menika eta Arkaitz Estiballes bertsoariak eta Txutxi Ariznabarretaren berbalidia. Amaieran argazki independentista aterako da.

## IGORRE

Zemendiaren 25era arte. Ines Medinaren mintegiko artista plastikoen Prozesu sortzaile konzientzia erakusketea.

20:00etan, zinekluba *Una chica vuelve sola a casa de noche*. Lasarte Aretoan.

## ZEMENDIAK 3

## DIMA

19:30ean, Etxean gure doguz-ek antolatutako lehenengo barikuko kontzentrazioa plazan.

## IGORRE

17:00etatik 20:00etara, Beldur Barik tailerrak: Autodefensa tailerra neskenentzat; desjabeakuntza Clown tailerra mutilentzat Kultur Etxean.

20:00etan, nagusientzako ipuin kontalaria. Ines Bengoaren *Historias de la fuente vieja*. Liburutegian.

## ZEMENDIAK 4

## IGORRE

10:00etatik 13:00etara, Beldur Barik tailerrak: Autodefensa tailerra neskenentzat; desjabeakuntza Clown tailerra mutilentzat Kultur Etxean.


22:00etan, zinea *Handia* Lasarte

Aretoan.

## ZEMENDIAK 5

## AREATZA

GEDk antolatutako herri galdeketea. 10:00etan, trikien kalejireia; 11:00etan, giza katea eta ekitaldia plazan; 12:00etan, tailerrak eta jokoak gazteentzat; 12:30ean, kantu poteoa EinGo taldeagaz; 15:00etan, herri bazkaria arkupetan; 17:00etan, batukadea; 18:00etan, Euskal Jantzak-Areatzako txistulariak; 20:00etan, botoen zenbaketea eta emoitak eta 20:00etan, gaztain erreak.



## Blues bakarlaría Corner-ean

The Reverend Richard John, blues bakarlaría britaniarra da. Hainbat musika tresna jotzen ditu, gizon orkestraren modura, eta kantuen berbak be berak idazten ditu gehienetan.

Hamarkada baten Erresuma Batuko blues zirkuitutik ibili zan (Colne Blues Festival, Castelbar Blues Festival...) eta gero Espainiako zirkuituan (Festival de Blues de Cazorla, Almeriako Blues Festival, eta abar).

Disko bi ditu klean, *Love in the Blues* eta *From the Inside out*.

## IGORRE

17:00etan, zinea *Spark una aventura espacial*; 19:30ean, *Handia* Lasarte Aretoan.

## ZEMENDIAK 8

## ARTEA

19:00etan, alkarte eta taldeak aurrekontuetako batzarra Kultur Etxean.

## IGORRE

16:00etan, Maskulinitateak, Bardintasuna eta Kirol Praktikea tailerra. Arratiako Udalen Mankomunitatean.

## ZEANURI

18:00etan, Mazala andra alkarteak antolatuta,

Inteligentzia emozionala zikloko berbalidia "*Dependencia emocional: signos de alarma, personalidades tóxicas*" udaletxe azpiko gelan.

## ZEMENDIAK 9

## ARTEA

19:00etan, aurrekontuen Auzo Batzarra. Bildosola, Mendieta, Gaztelu, Agarre, Bistalegre, Elexabeiti, Gallao, Madaria, Ibarretxe, Olabari Ugaldeta, Igertza, Sarasola, Garaiurkiola, Kukatze, Murga, Iturria, Laureta, Errotazahar eta Mendieta goikoa. Kultur Etxean.

## ZEMENDIAK 10

## ARANTZAZU

21:00etan, San Martinetako VII. bertsoafaria Onintza Enbeita eta Sustrai Colina bertsoariakaz. Arantzazuko EH Bilduko kultur batzordeak antolatuta. Sarrerak 8ra arte erosi daitezke Arantzazuko Herriko Tabernan eta Monteron, eta Igorreko Rugby tabernan eta Axular Herriko Tabernan.

## ARTEA

19:00etan, Ipuin Musikala Kultur Etxeko Areto Nagusian.

## IGORRE

21:00etan, Udagoieneko Ostera, Lemoako Larregi tadea eta Hesian taldeko Zuriñe Hidalgo eta Fran Uriasen kontzertuak Kultur Etxean.

## ZEMENDIAK 11

## AREATZA

19:30ean, Areatzako Bandaren kontzertua. Zezili Deuna. Eleizan.

20:00etan, Twin Room taldearen kontzertua The Quiet Corner-en.

## ARTEA

19:00etan, Bilbo Musika Eskolako Konboak, jazz, blues eta soul kontzertua eskeiniko dau Kultur Etxean; 21:00etan, Lorenzo Mena bakarlarieren kontzertua Herriko Bentan.

## IGORRE

22:00etan, zinea *It* Lasarte Aretoan.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta goizeko urtekerea Arratiatik perretxikotan.

## ZEANURI

Zeanuriko Kanta Eguna. 11:30ean, kantari ondo etorria eta kalejireia; 14:30ean, bazkaria; arrastian, kantuak eta jantzak.

## ZEMENDIAK 12

## IGORRE

17:00etan, zinea *Legoninjago*; 19:30ean, *It* Lasarte Aretoan.

## LEMOA

10:00etan, Lemoako Udalak antolatuta, XVIII. Nekazaritzako Elikagaien Azoka Elizondon.

10:00etan, Ganzabalek antolatuta, erakusketa mikologikoa Atxeta plazan.

## ZEMENDIAK 13

## LEMOA

Hilaren 19ra arte, Kirol Astea Lemoan. 10:00etan, SDK Hapikido Bizkaiak antolatuta, Hapikido defentsa personaleko dobako eskolea kiroldegian; 19:00etan, Iluntzen Gazte Kultur Elkarteak antolatuta, Koikili Lertundiren berbalidia "Kirolean landu beharreko baloreak" Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

## ZEMENDIAK 14

## ARTEA

19:00etan, Ogasun Batzordeak aurrekontuen zirriborroa aurkeztuko dau udaletxean.

## LEMOA

19:30ean, Kirlan-ek antolatuta, Oskar Garro Txirindularitza egokitutako ziklistearen berbalidia Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

## ZEMENDIAK 15

## LEMOA

10:00etan, SDK Hapikido Bizkaiak antolatuta, Hapikido defentsa personaleko dobako eskolea kiroldegian; 20:30ean, Aitor Iparragirrenen emonaldia "Pamir 2017" Jubiladuen Etxeko goiko aretoan. Argazki erakusketea Ganzabalek antolatuta.

## ZEANURI

18:00etan, Mazala andra alkarteak antolatuta, Inteligentzia emozionala zikloko berbalidia "*Micromachismos: el maltrato silencioso. Claves para tener una actitud crítica en una sociedad machista: publicidad, lenguaje, educación, etc.*" udaletxe azpiko gelan.

## ZEMENDIAK 16

## DIMA

18:30etik 20:30era, Mikromatxismoak identifiketan tailerra Abaro Aretoan.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## EGURRA SALTZEAN DA

Pago egurra saltzean da sua egiteko. 45€/tona. Gura izan ezker neurria zatituteko aukerea dago. Informazio gehiago 688 602 516 telefonon.

## DANERIK

## LAN ESKEINTZA

Lan eroso eta ondo ordaindutakoa eskeintzen dogu. Telekomunikazio enpresa baten, autonomo edo kolaboratzaileen bila gabiltz, ordutegi barik eta komisino handiak pagauta. Deitu 662 568 707 telefonora.

## ETXEA ALOKAIUAN

Etxe bat alokairuan Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea daukatz. Berokuntza txapeagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margari).

## GARAJEA BEHAR DOT

Karabanea ixteko garajea behar dot Arratian. 7 metroko luzeera eta 2,60 m.ko altuera. Deitu 675 712 841

telefonora.

## TRUKEA

Arratian (Areatza) bizi dan neska alemaniar/danimarkarrak beragaz ingelesez edo alemanieraz praktiketako aukerea eskeintzen dau, gaztelania praktiketea aukerearen truke. Interesdunak 634 445 924 (Sophie) telefonora deitu.

## GARAJE PARTZELA ALOKAIUAN

Zeanurin, Ibarretan garaje partzela bat alokatzen da. Interesdunak deitu 94 673 92 96 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1 Topaguneak emondako bina sarrera Udagoieneko Osterako Larregi eta Hesian taldeen kontzerturako.**

Hektor Rodriguez (Igorre)  
Iosu Murgia (Artea)



**2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Handia filmarako.**

Maitane Diez (Areatza)  
Unai Santos (Lemoa)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 15 urte eta ehundaka lagun.



# DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1	■						
2		■				■	
3					■		
4			■				
5							
6					■		
7			■				
8		■				■	
9							■

### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Goitik behera egiten dogu.  
2.- Letra bat. Informatikan, memoria.  
Konsonantea. 3.- Adaki. Errepetiduta,  
kontuz. 4.- Nora atzizkia. Zeozer  
arin-arin egiten danean. 5.- Zugatz  
berean ebatzen dan egur. 6.- Marfil.  
Iridioa. 7.- Min daukagunean dinogu.  
Gizonezkoen izena. 8.- Nitrogenoa.  
Berreketaren ikurraren izena.  
Berrogeta hamar erromatar.  
9.- Pluralez, gogoa, desioa.

### GOITIK BEHERA

1.- Ibilgailu mota bat. 2.- Boroa.  
Pelota handi. Letra bat. 3.- Modu,  
era. Talioa. Barioa. 4.- Hasitakoari  
ekin egiten deusagunean.  
5.- Amerizioa. (Atz.) ...-da, animoz  
eta indarrez egiten danean. Modua.  
6.- Letra bat. Ero. Konsonantea.  
7.- Urteko hilabete bat.

6	9	8	7	6	5	4	3	2	1
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Topau euren hasikeran zenbaki bat daukien zazpi berba.

Z	Z	A	S	P	I	K	O	T	E
O	I	N	O	A	R	L	S	M	R
R	B	A	N	U	S	A	T	A	B
T	X	A	L	O	P	E	K	O	A
S	E	I	T	O	L	A	U	M	E
I	L	K	A	A	B	O	S	T	O
L	A	R	I	G	I	Z	E	I	L
O	U	S	K	A	D	L	O	R	B
T	B	A	U	K	A	U	A	I	R
E	U	T	R	A	I	H	G	N	I
J	R	P	I	P	A	U	B	E	T
A	U	D	H	U	N	B	O	Z	P
R	A	P	E	A	L	A	U	T	A
E	S	N	H	I	R	U	S	T	A
N	O	L	E	G	A	P	L	A	R

# AKIKI MIKO

Iman Olatu



umean moda  
**SEM**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnua. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**AKEITEGIA**  
**GATY & LORA**  
**IGORRE**

**Igorren**  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
TLF. 94 631 92 00

**GARANTXE**  
**Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ  
ZEIB ERDARAZ  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnua: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@euskaltel.net

**ASEGURUAK:** AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...  
**ZUZENBIDE**  
ABOKATUAK, ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA, LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
**TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

**Jose Luis**  
**Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

**ZEKUTZE**  
JATEETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
zekutzejateetxea@hotmail.com  
Tel: 94 631 52 83

**Pinturas Aratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA** AUTOESKOLA  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-porla. urrozul@euskaltel.net



## IRATI BERNAOLA SAGARDUI

**"Ezin da errepublikeagaitik bakarrik burukatu, helburua herrialde duina eregitea da"**

Irati Bernaola, erizaina, bertsolari eta BEGITUKO

kolaboratzaile igorretarra Bartzelonan bizi da, eta

"prozesua" eta errepublikearen proklamazioa bertan

bizi izan dauz. Erizaintza komunitarioko espezialidadea

egiten joan zan 2016ko maiatzean beharrez, eta *Comité*

*de Defensa del Referendum* taldeko partaidea da.

Han gertatukoaren lekukotasuna emon deitso

Bernaolak BEGITURI emailaz egindako alkarrizketa honetan.

**Erredakzioa****Barru-barrutik bizi izan dozu Katalunian gertatutakoa.**

Urtebetean emon dan aldaketa sozial eta politikoa oso handia izan da. Nik prozesu soziala bizi izan dot hasikeratik batez be. Heldu nintzanean prozesua instituzino mailan emoten zan, eta guk jarraitzen genduan, baina beti garrantzia auzo mobimentuan eta herri poderearen artikulazioan mantenduz, eduki sozial barik independentziak ez daukalako legitimidadarik.

Erreferendumaren eguna jakin baino lehen, gure auzoan mobimentu sozialetatik *Acció per la Autodeterminació* lan taldea sortu genduan. Talde horren helburua erreferendumera begirako bitarteko edukia landutea zan. Taldea, ezker independentistako militantez harago osotuten hasi zan astiro-astiro, eta hilabeteak pasau ahala sensibilidade desbardineko jentea hurreraten hasi zan. Mobilizazio giroa handitu ahala, 10 personako asanbladatik 200 personako asanblada bihurtuta heldu zan azken asteetan. Hazkundera mundiala izan zan; parte hartze eta erreferenduma babestuteko gogo handia egoan. Kataluniako auzo eta herri guz-

tietan bardina pasau zala ikusita, erreferenduma babestuteko talde guztiak izen bardina ipintea ebatzi zan, eta *Acció per la Autodeterminació* deitutetik, *Comité de Defensa del Referendum* (CDR) deituta pasau zan.

Estadu espainiarraren eraso errepresiboan aurrean, baiezko botoaren kanpainearen defentsatik, eskubide zibilen eta herrien duintasunaren defentsara pasau zan mobilizazioen fokoa. Prozesu honetan "baiezkoa bozkatu"tik "bozkatu"ra pasau zan jendartearen diskursoaren zati handi bat.

**Azaldu zer dan CDR eta egin dozu lan.**

*Comité de Defensa del Referendum* (CDR), autodeterminazioaren aldeko apustuagaz, urri bigarrenaren 1eko erreferenduma antolatuteko eta babesa emoteko asmoagaz sortu zan. Besteak beste, eskolen okupazioa eta defentsa, Katalunia gelditu arazo eban greba orokorra eta mobilizazio masiboak antolatu dauz.

Guraso alkarteak hartu eban papela erreferendumeko astegienean. Eskoletako egitaraua antolatu eta eskolak zabalik egotea bermatu eban, oso inportantea izan zan euren beharra.

Baina CDRak ez ziran erreferenduma eta gero desagertu. Emoi-

tzak defendidu eta apliketako burruka hartu eban oinarri, eta Kataluniako errepublika deklaratu bidea hartu, eta 155. artikularen aurrean antolatu eta erantzuna emoteko momentua heldu zan.

CDRak izan dira lokomotorak, herri mobimentua eta herri poderea irudikatu da bertan, eta eurak izan behar dira prozesu independentistaren eta konstituzinogileen oinarri.

**Zelan dagoz gauzak 155. artikularen aplikazioaren ostean?**

Prozesua gai zentrala da beti, egunero dago kalean beste gertaera guztien gaitetik. Jenteak horren inguruan egiten dau berba. Egunero emoten dira aldaketa politiko txikiak eta ezin dogu ezer antolatu hemetik aste betera.

Orokorrean batasun sozialaren sensazioa bizi dogu nahiz eta tentsio egoerak be bizi.

Halanda be, urri bigarrenaren 1a baino lehenagoko jazarpen politikoz hasi eta 155. artikularen aplikazioagaz jentea ez da atzera bota, baina igarten da nekea eta desgastea. Ordu asko pasau doguz kanpoan, kanpoan egin behar izan dogu lo eskolak defendiduteko, eta asteak pasau ahala gorputzean igarten da.

Ekonomia aldetik, giroa lasaia da baina bildur eta duda asko sortu dira honen inguruan (enpresen helbide sozialen aldaketea, Europar Batasunaren babesik eza, ibex 35aren gorabeherak...). Dana dala, irakurketa ekonomikoa diferentea da zein ikuspuntu politiko eta ekonomikotik begiratuten dozunaren arabera.

**Zelan ikusten dozu Katalunian hurreko etorkizuna?**

Urri bigarrenaren 27ko 14:20ean nabil alkarrizketa hau amaituten, etxeko salan, telebistaren aurrean. Plenoa ospatuten dabil ointxe bertan eta gaur ebatziko da Katalunian etorkizuna.

Halanda be, ezin dogu ahaztu ezin dala errepublikeagaitik bakarrik burukatu, independentziagaz ez da helburua irabazten. Helburua herrialde duin bat eregitea da; herrialde katalanak bere osotasunean aintzat hartuko dauana, etxebizitza eskubidea bermatuta eukiko doguna, sistema ekonomikoa langile klasearen mese-

detara egongo dana eta ez elite ekonomikoen mesedetara, kalidadezko hezkuntza eta osasungintza publikoa eukiko dauana, andrak aske biziko garena jendarte feminista baten, eta beste hainbeste eskubide eukiko doguzanak. Prozesu konstituzinogilean behar handia dago ondino egiteko.

**Euskal Herrian be antzekoa egin daitekela uste dozu? Zergaitik?**

Nire ustez ezin dogu Kataluniako prozesua Euskal Herrira eroan eta modu bardinean aplikau. Euskal Herriak eta Kataluniak antzekotasunak badaukiez, baina historia eta testuinguru politiko, sozial eta ekonomikoa eta gatazka politikoak oso diferenteak dira. Beste formula bat asmatu behar dogu.

Nire ustez, Euskal Herriak momentu politiko hau aprobetxau behar dau independentziara bidean aurrerapausuak egiteko, Estadu espainolaren eta bere erregimenaren gainbehera eta *status quo*aren apurketa aprobetxau behar dogu, baina horretarako indar politiko guztien aldeko borondate politikoa egon behar da.

Ez dakit prozesu instituzionalaren formula zein izan behar dan, baina oso argi daukat herri mobimentua artikulatu orduan Katalunia eredu euki beharko gendula. Herria izan da protagonista eta

horrek erreferendumaren emoitzei emoten deusie legitimidadea.

**Zelan ikusten dozu Euskal Herrian Gure Esku Dago egiten dabilen ibilbidea? Zure ustez zer da, independentismoaren diagnosia, testimonio hutsa ala independentziarako bide eraginkorra?**

Gure Esku Dagok, erabakitze eskubidea defendiduteaz gain, mobilizaziorako ahalmena euki behar dau. Herrietako taldeak behar dau, independentziarako bide eraginkorra herriak eregi behar daualako. Mobimentu sozialak hartu behar dabe protagonismoa eta Gure Esku Dago izan behar da horretarako tresna.

**Zelan hartu zaitue Bartzelonan? Euskaldunak ala katalanak daukazu hartu-emon gehien?**

Danetik. Prozesuagaz batera euskaldun piloia etorri da honantza baina orokorrean katalanak egiten dot bizimodua eta eurakaz integratu nago. Eta egunerokotasuna katalanez bizitea be lortu dot!

Esan dodan moduan, alkarrizketea plenoa ospatzen dabilen bitartean idazten nabil. Laster ebatziko da Kataluniaren etorkizuna. Hementxe ixten dot, atea zabalik, banoa mobilizazioetara!



**ZURE ZERBITZURA**

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

**GURE BIHOTZA**

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan

ADENOR Igorre  
www.aviaenergias.es